

# **BERGARAKO UDALERAKO HAINBAT KIROL ZERBITZUREN PRESTAZIOA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN KLAUSULA JURIDIKO– EKONOMIKO–ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

## **1. XEDEA**

Plegu honen xedea da honako zerbitzu hauen prestazia kontratatzea:

- 1.1 Bergarako Agorrosin Ekintza Guneko igerilekuetako salbamendu eta sorosle zerbitzua.
- 1.2 Udalak eskatutako uretako jarduerak eta ikastaroak, gimnasioko jarduera fisikoak, aholkularitza fisikorako zerbitzua eta herrian antolatu ditzakegun jardueretan (kirola kalera, bizikleta jardunaldiak, eta abar), irakasle, monitore, aholkulari edota zaintzaile zerbitzuak ematea.

Une honetan ematen ari diren zerbitzuak I. eranskinean daude jasota.

## **2. EPEA**

Prestazia emateko epea guztira LAU URTEKOIA izango da, kontratua sinatzen denetik hurrengo egunetik hasita, baina urteko bakoitzaren amaieran Udalak bukatutzat eman ahal izango du hiru hilabete lehenago abisatuta.

Kontratista berandutze-egoeran egongo da epe hori igaroz gero, eta Administrazioaren aldetik ez da ohartarazi beharrik izango.

## **3. ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK**

### **3.1 BETEBEHAR OROKORRAK.**

- a) Kontratuan finkatutako denboran, plegu honi jarraituz eta kontratua interpretatzeko Administrazioak kontratistari ematen dizkion jarraibideei jarraituz zerbitzuak ematea. Ezingo dio beste bat laga kontratua, ez guzia ez zati bat, Administrazioaren berariazko baimena ez badu.
- b) Behin betiko fidantza ezartzea, adierazi den epean; eta fidantza osagarria, egoki denean.
- c) Kontratua sinatzea plegu honetan ezarritako epean.
- d) Udalari hamabost eguneko epean jakinaraztea sor daitezkeen ezintasunak edo bateraezintasunak.
- e) Lan Legerian, Gizarte Segurantzian, eta 31/1995 Legean datorren guztia (Laneko Arriskuen Prebentzio Legea) eta garatzen duten Errege Dekretuetan betetzea, bai eta zerga gaietan ere. Udal guztiz libre geratzen da xedapenak ez betetzetik sor daitezkeen edozein erantzukizunetatik.
- f) Udaleko Kirol Zerbitzuak ezarritako koordinazio-bileretara azaltzea, ezarritako koordinazio eta ebaluazio mekanismoak betez. Koordinazio-bilera hauek batzuetan sorosleen edota kirol begiraleen ezinbesteko partaidetza dakarte, horregatik horiek eta Udalak deritzonean, bileretan beren partaidetza ezinbestekoa izango da.
- g) Zerbitzuak emateko beharrezkoak diren langileak kontratatzea. Kontratatutako langileen kontratuen eta Gizarte Segurantzian alta eman izanaren agirien kopiak aurkeztu beharko dira, kontratatzen diren egunetik kontatzen hasita gehienez ere 10 eguneko epean.

Zerbitzuaren adjudikazio-hartzaileak bere gain hartu beharko ditu gaur egun zerbitzua ematen duten langileak, eta subrogatuta geldituko da aurretik egon diren entitate adjudikazio-hartzaileak lan arloan zitzuten eskubide eta betebeharrei dagokienean. II. eranskinean langileen zerrenda jasotzen da, eta informazio gehigarria (langileen kontratuak, nominak ..) interesatuen eskura egongo da Kirol Departamentuan.

Langileria horren arduradun bakarra adjudikazio-hartzailea izango da. Hori dela eta, adjudikazio-hartzaileak nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak izango ditu eta lan arloan, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu bere menpeko langilierekin.

Lanean ari direla, langileek edozein motatako istripua edo kalteren bat jasanez gero, adjudikazio-hartzaileak indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean eta Bergarako Udalak ez du horretan inolako erantzukizunik izango. Hori guztia bermatzeko, erantzukizun zibileko polizaren barnean "erantzukizun patronal" esaten zaion arriskua gutxienez 100.000 eurotan aseguratu beharko du.

Bergarako Udalak edozein momentutan eska diezaioketan betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzea.

Kontratua amaitu ondoren, Udalak ez da adjudikazio-hartzaileak kontratatutako edo berarentzako lanean dabilen langiliariaren kargu egingo.

h) Enpresak bete beharreko hizkuntza irizpideak:

#### Hizkuntza gaitasuna

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, honako gaitasun-maila egiaztatu beharko dute zerbitzua emango dutenek (Europako Erreferentzia Markoaren araberako mailaketa):

- Kirol ikastaro eta ekintzetan irakasle, monitore, aholkulari edota zaintzaile zerbitzuak ematea: 3. HEa.
- Sorosleek: 2 HEa.

Kontratua adjudikatu aurretik egiatzatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiatzatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiatzatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

#### Hizkuntzazko arau eta irizpideak

Kontratazio honen bitartez bideratuko diren ikastaroetan, sorospen zerbitzuetan, aholkularitza-zerbitzuetan zein herritarrekin bideratzen diren bestelako komunikazioetan euskarazko harremanak sustatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuaz.

Udaleko Kirol Zerbitzuak edo Euskara Zerbitzuak emango dizkiote enpresa adjudikazio-hartzaileari irizpideon gaineko azalpen zehatzak eta enpresa arduratu beharko da langileei irizpideok azaltzeaz eta betetzearen jarraipena egiteaz.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen eta Udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira.

- i) Zerbitzu hauek eskaintzerakoan udalari edo besteri egindako kalte-galerak ordaintzea. Horretarako, sor litezkeen edo zerbitzua eskaintzeak ekar ditzakeen kalteak estaltzeko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetu beharko du, gutxienez 300.000 euroko kapitalaz.
- j) Udal honekiko betebeharretan egunean egotea.
- k) Jarduerak Udal Kirol Zerbitzuak ezarritako ordu eta egunetan ematea.
- l) Jarduerak antolatzeko udal kirol zerbitzuaren egitasmoko ekintzak aurrera eramatea (abian ipinitako egitasmoa exekutatu, zerrendak pasa, ziurtagiriak ikasleen artean banatzea, mailaz mailako erregistroa eraman eta jardueren egitasmoa zehaztu daitezkeenak). Horretarako, bai enpresak eta baita bere langileek ere, datu personalen babeserako legeak zehaztutakoa beteko dute.
- m) Monitoreen bitartez, ikastaroa emateko behar den diziplina mantentzea, ikasleak eta beste erabiltzaile batzuk gogaitu barik, eta hango arauak bete eta betearaztea.
- n) Erabili behar den materiala muntatu eta desmuntatzea, atera eta jasotzea, ikastaroak garaiz emateko. Horrekin batera kirol esparruak zabaltzeaz eta ixteaz ere arduratuko dira.
- ñ) Langileen arteko, enpresa eta langileen arteko eta enpresa eta Udalaren arteko harremanak jaso eta bilduko dituen egitasmoa aurkeztu eta betetzea. Bertan, enpresako eragileen arteko barne koordinazio eta kontrolaren berri emango da. Horretarako, pertsona bakoitza eta bere funtzioak definituko dira.
- o) Auto babes planean jasotako betebeharretan parte hartzea;; Udalak adierazitakoari jarraituz, langileen artean banatu, ezagutzera eman bakoitzaren ardurak

### 3.2 SOROSLE ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK

- a) Eusko Jaurlaritzaren 32/2003 dekretua, otsailaren 18koa, **erabilera kolektiboko igerilekuaren araudi sanitarioak** ezartzen dituen soroslearen egitekoak eta arauditik eratortzen diren arau guztiak bete eta betearaztea.
- b) Agorrosin gunerako sorosleentzako une bakoitzean indarrean dagoen protokoloa betetzea. Une honetan indarrean dagoen protokoloa III. eranskinean jasotzen da.

### 3.3 URETAKO JARDUERAK ETA IKASTAROAK, GIMNASIOKO JARDUERA FISIKOAK, AHOLKULARITZA FISIKORAKO ETA BESTE ZERBITZUETAN; IRAKASLE, MONITORE, AHOLKULARI EDOTA ZAINTZAILE ZERBITZUAK EMATEKO BETEBEHARRAK.

- a) Udal kirol zerbitzuak ezarritako **ordu eta egunetan saioak edota zerbitzua ematea**.
- b) Ikastaroak, aholkularitza fisikorako eta beste zerbitzuak antolatzeko, Udal kirol zerbitzuaren eta Udalaren beraren egitasmoko ekintzak aurrera eramatea (abian ipinitako egitasmoa exekutatu, zerrendak pasa, ziurtagiriak ikasleen artean banatzea, erregistroa eramatea, Udaletik ezarritako kirol helburu eta edukiak, eta abar).

Fitness eta aholkularitza fisikorako zerbitzua ematean baldintza hauek bete behar dira:

- Fitnesseko aparatuak erabiltzen irakastea.
- Herritarrek edota erabiltzaileek eskatzen dutenean, oinarrizko entrenamendua prestatzea, jarduera fisikoan hasteko aholkuak emanet, beharrezkoa bada, monitorearen esku jarriko den eredu oinarrituz.
- Instalazioak ondo-ondo zaintzen direla ziurtatzea.

- Makinen mantenu-lan prebentiboa egitea, eta makinaren bat apurtu edo huts eginez gero, instalazioen arduradunei jakinaraztea.
  - Erabiltzaileei behar duten laguntza teknikoa ematea, tratuan erabateko berdintasunez jokatuz, eta beharrezko segurtasun-neurriak hartuz, kalterik ez hartzeko ez inork edo ezerk.
  - Instalazioen erabiltzaileak ondo jokatzen eta bizikidetza-arauak eta higiene-arauak betetzera behartzea.
  - Araututako txosten edo jakinarazpenak egitea.
  - Zerbitzuaren barruan egin beharreko gainerako zereginak.
  - Jarduera fisikoa sustatzeko jarduerak bultzatu eta bideratu.
- c) Ur-jardueren irakaskuntza-jarduerarekin batera igerilekuko zaintza eta sorospen lanak uztartu ahal izango dira.

#### **4. ZERBITZUETAKO LANGILEEN TITULAZIOAK**

**SOROSLE ZERBITZUA:** Sorosleek, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak igerilekuetarako onartuta dituen sorosle tituluak eta formazioak eduki beharko dituzte eta eguneratu bi urtetik behin, edota une bakoitzean indarrean dagoen legediak eskatzen duenean.

**URETAKO JARDUERAK, IKASTAROAK ETA BESTE ZERBIZTUETAN .** Zerbitzua eskaintzeko jartzen diren langileek, Kirol eta Jarduera Fisikoetako Goi Teknikoaren agiria izan beharko dute. Dena den, Hezkuntza Fisikoan Diplomatua edo, Kirol eta Jarduera Fisikoetako Zientzietako Lizentziatu edo gradu agiria dutenak edo baliokideak direnak indarrean dagoen legediaren arabera ere eman ahal izango dute. Salbuespen gisa, gainera, zerbitzua eman ahal izango dute aurretik aipatutako titulazioa ez dutenek, baina igeriketa monitore agiria izan eta Bergarako Agorrosin instalazioan zerbitzu hauek eman dituztenek 2011ko urriaren 31 baino lehen.

**GIMNASIOKO JARDUERAK.** Zerbitzua eskaintzeko jartzen diren langileek, Kirol eta Jarduera Fisikoetako Goi Teknikoaren agiria izan beharko dute. Dena den, Hezkuntza Fisikoan Diplomatua edo, Kirol eta Jarduera Fisikoetako Zientzietako Lizentziatu agiria dutenak edo baliokideak direnak indarrean dagoen legediaren arabera ere eman ahal izango dute. Salbuespen gisa, gainera, zerbitzua eman ahal izango dute aurretik aipatutako titulazioa ez izan baina Bergarako Agorrosin instalazioan zerbitzu hauek eman dituztenek 2011ko urriaren 31 baino lehen.

**FITNESS ETA AHOLKULARITZA FISIKORAKO ZERBITZUA.** Zerbitzua eskaintzeko jartzen diren langileek, Kirol eta Jarduera Fisikoetako Goi Teknikoaren agiria izan beharko dute. Dena den, Hezkuntza Fisikoan Diplomatua edo, Kirol eta Jarduera Fisikoetako Zientzietako Lizentziatu agiria dutenak edo baliokideak direnak indarrean dagoen legediaren arabera ere eman ahal izango dute.

#### **5. LIZITAZIO-OINARRIA**

Kontratuaren balio estimatua 410.000 eurokoa da (%21eko BEZA barne) lehen unterako.

Kontratu honen lizitazio oinarria zerbitzua emandako ordu bakoitzeko ondorengoa da:

- a. Sorosle zerbitzua, 27,58 € / orduko + (%21eko BEZA) izango da lizitazio oinarria.
- b. Irakasle, monitore, aholkulari edota jardueretan zaintzaile zerbitzuak ematea: 33,08 €/orduko + (%21eko BEZA) izango da lizitazio oinarria.

Prezio horretan sartuta daude kontratuaren ondorioz sortu daitezkeen gastu guztiak, BEZA izan ezik.

Erakundeak BEZA ordaintzetik salbuetsita egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko du eta kopuru hori ez da eskaintzan sartuko.

## **6. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA ERA**

Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiaren bitartez egingo da.

## **7. KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratacio-jardunbide honetan, baldin eta beren ekonomi eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zehazten diren kontratatzeko debekuetakoren bat ere ez badute. Kaudimena egiazatzeko eta ebaluatzeako bideak 8. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Halaber, nork bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lizitazaleek helburu izan behar dute kontratu honen helburuarekin zuzeneko lotura duten ekintzak egitea, eta kontratua behar bezala betetzeko nahiko elementu pertsonal eta material daukan antolaketa-talde bat eduki behar dute.

Lizitazioan parte hartzeko, 12.000 euroko behin-behineko fidantza ezartzea derrigorrezko baldintza izango da.

## **8. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorean aurkeztuko dira, plegu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren bihamarunetik kontatzen hasita 15 egun naturaleko epean, astelehenetik ostiralera, goizez, 9:00etatik 13:00etara bitartean. Epea larunbat, igande edo jai-egun batean bukatzen bada, hurrengo asteguneko eguerdiko 13:00etan bukatuko da epea.

Kontratacio honen espedientea aztertu ahal izango da Udal honetako Kirol Zerbitzuan (Agorrosin ekintza gunean) goizeko 09:00etatik 13:00 arte (astelehenetik ostiralera) proposamenak aurkezteko epealdian.

Lizitazio hau Udaleko Kontratatzailaren Profilean iragarriko da, eta pleguetara sarbidea bertatik egin ahal izango da ondorengo web orrialdean: [www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)

Administracio Publikoen Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, korreoz ere aurkeztu ahal izango dira proposamenak. Horretarako lizitazaleak proposamena Postetxearen aurkeztu duen data justifikatu beharko du, eta proposamena postaz bidali izanaren frogagiria bidali beharko dio Bergarako Udalari faxez (fax zenbakia: 943779163) klausula honetako lehenengo lerraldian adierazitako epea bukatu baino lehen. Baldintza bi horiek pilatu ezean ez da proposamenik onartuko, proposamenak aurkezteko epea amaitzeko eguna baino beranduago jasotzen bada. Edozelan ere, adierazitako egunetik hamar egun natural igaroz gero proposamena jaso barik, proposamena ez da inolaz ere onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela enpresariak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzaleek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik, baina bai aurkeztu ditzakete bidezkotzat jotako hobekuntzak.

Proposamenak itxitako gutunazal batean aurkeztuko dira, eta gutunazalak izen hau izan beharko du: "Bergarako Agorrosin Ekintza Gunean hainbat zerbitzu emateko proposamena"

Gutunazal horren barruan hiru kartazal sartuko dira, A, B eta C gutunazalak itxita.

"A" gutunazalean, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA SOLBENTZIA" izenburuean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

- a) Proposamena aurkezten duen pertsonaren NANA, bai norbere izenean bai ahaldun moduan aurkezten badu, edo bestela kautotutako kopia.

Lizitatzalea pertsona juridikoa bada: eratze edo aldaketa eskritura (Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutakoa) eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren kopia kautotuta. Enpresariak espainiarak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, nahikoa da lanbide edo merkataritza erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatzea, dagokion estatuko legediak betekizun hori eskatzen baldin badu.

- b) Lizitatzaleak norbere izenean ez diharduenean edo lizitatzalea sozietate bat edo pertsona juridikoa denean, ahalorde notariala, ordezkatzen duen pertsona edo entitatea ordezkatzen. Ahalorde hori behar bezala inskribatuta egon behar da, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan; edo, ordezkaritza pertsonala izanez gero, dokumentu publikoan.

- c) Eskaintza sozietate baten izenean aurkezten denean, eskaintzarekin batera, sozietatearen eratze eskrituren edo sozietatearen estatutuen aldatze kopia erantsiko da.

- d) Kaudimen ekonomikoa eta finantzaketakoa kreditatzen du(t)en dokumentua edo dokumentuak.

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 75. artikuluan datozen moduetako batean egiaztatu beharko da.

- e) Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzen du(t)en dokumentu edo dokumentuak.

Helburu horrekin aurkeztu beharko dira azken 5 urteetan emandako zerbitzurik garrantzitsuenen zerrenda, zuzendutako jarduerena (*aerobic, body balance, aquaerobic, spinning, pilates, gihar tonifikazioa, gap, zunba, gimnasia, jumpfit, crossfit eta abar*), sorosle zerbitzurik garrantzitsuenena eta eman diren igeriketa ikastaroena; eta bertan agertu beharko da diru zenbatekoa, datak eta onuradun publiko zein pribatuak eta euren exekuzio ona ziurtatzen duten agiriak.

Azken bost urteetako batean goian aipatutako zerbitzuak ematen gutxienez 385.000 euro (BEZ barne) fakturatu dituztela egiaztatzen ez duten lizitatzaleek gaitasun teknikorik ez dutela egiaztatu ulertuko da eta ez dira onartuak izango. Zuzendutako jardueretan ez da beharrezkoia izango jarduera denak eman izana egiaztatzea.

- f) Bere erantzukizunpean Sektore Publiko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluak jasotako debeku kasuek ez diotela eragiten adierazten duen aitorpena.

g) Espainiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren menpe egongo dela adieraztea, kontratuaren ondorioz izan litekeen intzidentzia guztiarako, eta lizitatzaleari egokitu lekiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten diola (atzerriko enpresentzat bakarrik).

- h) Udal Kontuhartzaitetan 12.000 euroko behin-behineko fidantza jarri dela egiaztatzen duen agiria.

i) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela adierazten duten egiaztagiriak edo zinpeko aitorpena.

j) Kontakturako telefonoa eta fax-a eta/edo e-maila.

Dokumentazio originala euskara edo gaztelera ez den hizkuntza batean idatzita badago, bi hizkuntza hauetako baten itzulpen ofiziala erantsi beharko da.

**OHARRAK:** Empresa lizitazalea Euskal Autonomi Erkidegoko edo Estatuko Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda badaude, a) b) eta c) ataletan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ordez, Erregistroko arduradun letratuak emandako ziurtagiriaren kopia kautotua aurkeztu ahal izango dute, eta horrekin batera lizitazalearen zinpeko aitorpena, dokumentu horretan adierazten den egoerak aldaketak jaso ez dituela esanez.

Hainbat enpresak lizitaziora aurkezteko bat egiten badute Aldi Baterako Empresa Elkartea (ABEE) sortuz, ABEE osatzen duten enpresa bakoitzak bere gaitasun eta solbentzia egiaztatu beharko du aurreko puntuetañ adierazi bezala, eta zerbitzua beraiei adjudikatuz gero ABEE osatzeko konpromiso formalak aurkeztu. Era berean, enpresa bakoitzak ABEEaren barruan hartuko duen kontratuaren zatia adierazi beharko dute, guztien solbentzia-eskakizunak konprobatzeko eta zehazteko helburuarekin. Gainera, kontratuaren indarraldian Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango duen pertsona izendatuko dute.

Zerbitzua adjudikatzen ez zaien enpresa lizitazaleek, kontratau adjudikatu ondoren eta errekursoak jartzeko epea errekurtsorik jarri barik bukatutakoan, "A" sobrean jarritako dokumentazioa itzularaztea eska dezakete. Enpresa adjudikatzaileak ere eskatu ahal izango du, kontratuaren exekuzioa bukatu eta behin betiko bermea itzultakoan. Dokumentazio hau administrazioaren esku gelditu eta bi hilabete iragandakoan, suntsitu ahal izango du.

"B" gutun-azalean, "ZERBITZUAREN PROPOSAMENA" izenburuean, Kirol Kudeaketa Egitasmoa aurkeztu beharko da, 10. puntuaren ipintzen diren hiru atalen arabera antolatuta eta bereiztuta sorosle zerbitzuarena alde batetik, eta bestetik beste zerbitzuena.

Inoiz ez da sartuko gutun-azal honetan proposamen ekonomikoa edo "C" gutun-azalean sartu beharreko beste edozein dokumentu. Sartuz gero lizitazalea prozedura honetatik kanpo geratuko da, eta ez da irekiko "C" kartazala.

**"C"** gutun-azalean, "ESKAINTZA EKONOMIKOA" izenburuean, honako hauek sartuko dira:

a) Proposamen ekonomikoa, ondorengo ereduari jarraituz:

\_\_\_\_\_ jn./and.-k (helbidea: \_\_\_\_\_), nortasun-agiria: \_\_\_\_\_ ) bere izenean edo \_\_\_\_\_ -ren ordezkaritzan (helbidea: \_\_\_\_\_ eta IFZ: \_\_\_\_\_), Bergarako Udalak **Agorrosingo kirol gunean hainbat zerbitzuren prestazioa kontratatzeko** prozedura irekiaren baldintzen berri izanik, konpromisoa hartzan du zerbitzu hori baldintza-orrian jasotako baldintzetan eta aplikatzekoak diren legezko arauetan agindutako moduan emateko, prezio hauetan:

- Sorosle zerbitzua: ..... euro/orduko, gehi ..... euro BEZari dagozkionak. Hau da, .... eurotan (BEZ barne).
- Irakasle, monitore, aholkulari edota zaintzaile zerbitzuak; uretako jardueretan eta ikastaroetan, gimnasioko jarduera fisikoetan, aholkularitza fisikorako zerbitzuan eta herrian antolatu ditzakegun jardueretan: ..... euro/orduko gehi ..... euro BEZari dagozkionak. Hau da, .... eurotan (BEZ barne).

Bergaran, 2017ko .....-ren .....-(e)(a)n.

## Sinadura

Ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomiko bakar bat ere ez da onartuko. Inoiz ez da sartuko kartazal honetan “B” kartazalean sartu beharreko dokumentazioa. Dokumentu horietatik edozein sartuz gero “C” kartazalean, ez dira agiri horiek baloratuko.

Lizitatzairen bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Eta baldintza hori bete ezean, aurkeztutako proposamen guztiak atzera botako dira. Gainera, bakarka aurkeztu bada, ezin izango du beste batzuekin aldi-baterako elkartasunezko proposamenik ere aurkeztu.

### **9. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak ireki baino lehen, Mahaiak ”A” kartazalean aurkeztutako dokumentuak sailkatuko ditu, eta, dokumentazio horretan akats materialik sumatuz gero, hiru laneguneko epea eman ahal izango dio lizitatzairen akatsa zuzen dezan.

Kontratacio Mahaiak proposamenak Udaletxean irekiko ditu (San Martin Agirre Plaza, 1ean) proposamenak aurkezteko epea amaitu eta lau egunetara eguerdiko 12:30ean.

Ekitaldi honetan bakarrik onartutzat eman diren proposamenen “B” kartazala irekiko da, ekitaldi publikoan.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzairen profilean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

“B” kartazalean jasotako eskaintzak baloratu ondoren, Kontratacio Mahaiak proposamenen “C” kartazala (eskaintza ekonomikoa) irekiko du, ekitaldi publikoan hau ere. Ekitaldi horretarako deialdia ere kontratatzairen profilean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) argitaratuko da, baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Kontratacio mahaia honako hauek osatuko dute:

#### LEHENDAKARIA:

- Bergarako udaleko alkate-lehendakaria edo berak eskuordetzen duena.

#### BOKALAK:

- Kirol batzordeburua edo berak eskuordetzen duena.
- Kontuhartzalea edo berak eskuordetzen duena.
- Udaleko idazkaria edo berak eskuordetzen duena.

#### IDAZKARIA

- Udalbatzakoa edo berak eskuordetzen duena.

### **10. ADJUDIKAZIORAKO PROZEDURA. PROPOSAMENEN BALORAZIOA**

Kontratu honen xedea zerbitzu desberdinak ematea denez, sorosle zerbitzua emateko egindako eskaintza gehienez ere 45 puntuarekin baloratuko da eta beste hainbesterekin gainontzeko zerbitzuetarako egindako eskaintza. Ondoren, bi ataletan lortutako puntuazioa batu egingo da, enpresak lortutako puntuazioa zehazteko.

**Atal bakoitza** honako irizpide hauen arabera baloratuko da:

#### **10.1 Sorosle zerbitzua**

- **Sorosle zerbitzuaren eskaintza ekonomikoa:** Sorosle zerbitzuaren orduko prezioa jaistea 5 centimo bakoitzeko puntu bat balioko du. Ezin izango da 0,5 €/orduko jaitsiera baino gehiago egin. Beraz, atal honetan lor daitekeen gehienezko puntuazioa 10 puntu izango da.
- **Kirol Kudeaketa egitasmoa.** Adjudikazio-hartzaileek kirol kudeaketa egitasmo bat aurkeztu beharko dute. Egitasmo honetan aurkez daitezkeen bestelako atal eta gaiez gain, gutxienez atal hauek sartu beharko dira:
  - **Udal Kirol Zerbitzuarekin koordinazio prozesuak.** Adjudikazio-hartzaileak bere giza-baliabideen koordinazio kudeaketaren berri ematen duen txostenetan aurkeztuko du. Txosten horretan duen langileria, antolaketa, kontrol sistemak eta neurri-zuzentzaileen berri emango du. Horrekin guztiarekin batera, Udalarekin izango dituen hartu-emaneztarako antolaketa eredu bat ere zehatztuko du: koordinazio bilerak, bilera motak, fakturazio bideak eta abar.

Atal honetan lor daitekeen gehienezko puntuazioa 25 puntu izango da.
- **Zerbitzua hobetzeko beste proposamenak, eta Bergarako Udalarentzako koste gehigarririk edukiko ez dutenik.** Atal honetan gehienez **10 puntu** lortu ahal izango dira.

## **10.2 Beste zerbitzuak**

- Eskaintza ekonomikoa. Zerbitzuaren orduko prezioa jaistea 5 centimo bakoitzeko puntu bat balioko du. Ezin izango da 0,5 €/orduko jaitsiera baino gehiago egin. Beraz, atal honetan lor daitekeen gehienezko puntuazioa 10 puntu izango da.
- **Kirol Kudeaketa egitasmoa.** Adjudikazio-hartzaileek kirol zerbitzuen kudeaketa egitasmo bat aurkeztu beharko dute. Egitasmo honetan aurkez daitezkeen bestelako atal eta gaiez gain, gutxienez atal hauek sartu beharko dira:
  - **Zerbitzuetako ustezko ikasturte hipotetiko baten plangintzaren adibidea.** 2018/19 ikasturtea kontuan hartuta, ikasturte osoko kirol programa bat eskatzen da. Kirol programa hau teorikoa izango da eta bertan saioen antolaketa proposamen bat egingo da. Kontuan hartu beharko dira jarduerak, helburuak, metodologia eta horiek denak aurrera eramateko beharrezkoak diren planifikazioak.
  - **Fitness eta aholkularitza fisikorako zerbitzuaren antolaketa proposamena.**
  - **Udal Kirol Zerbitzuarekin koordinazio prozesuak.** Adjudikazio-hartzaileak bere giza-baliabideen koordinazio kudeaketaren berri ematen duen txostenetan aurkeztuko du. Txosten horretan duen langileria, antolaketa, kontrol sistemak eta neurri-zuzentzaileen berri emango du. Horrekin guztiarekin batera, Udalarekin izango dituen hartu-emaneztarako antolaketa eredu bat ere zehatztuko du: koordinazio bilerak, bilera motak, fakturazio bideak eta abar. **Eskaintzarako berritzaleak izan daitezkeen programak eta proposamenak, eta adjudikazioa hartzailea izan ezkerro aurrera eramago dituenak.** Atal honetan azpimarratu beharko dute beren egitasmoaren barruan sartu ditzaketen kirol programak eta interesgarri izan daitezkeen bestelako edozein atal.

Atal honetan lor daitekeen gehienezko puntuazioa 25 puntu izango da.

- **Zerbitzua hobetzeko beste proposamenak, eta Bergarako Udalarentzako koste gehigarririk edukiko ez dutenik.** Atal honetan gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira

## 11.- ADJUDIKAZIOA

Kontratacio mahaia, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 320.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratacio organoari bidaliko dizkio aurkeztu diren proposamenak, akta eta adjudikazio proposamenarekin batera.

Kontratacio Organoak, aukeran, ahalmena izango du kontrua proposamen onuragarrienari adjudikatzeko edo prozedura ezerezean geratu dela adierazteko, baina kasu guztietan arrazoitu egin behar du hori.

Alkatetzatik errekerimendua egingo zaio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar laneguneko epean, jardun hauek egin ditzan:

- a) Egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharra eti Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu.
- b) 80.000 euroko behin betiko fidantza ezarri. Fidantza hori Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 96. artikuluan xedatutako edozein eratan ezarri ahal izango da.
- c) Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- d) Kontrua aurrera eramateko beharrezko bitartekoak jarriko direla adierazten duen dokumentua aurkeztea.
- e) Erantzukizun zibileko poliza (erantzukizun patronala barne) eta erreziboa
- f) 14. puntuaren aipatutako koordinatzaile teknikoaren datuak

Kontratuak kontratacioaren alorreko errekurso berezia jartzeko aukera eskaintzen duenez TRLCSPren 40.1 artikuluaren arabera, formalizazioa ezingo da burutu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaleei eta hautagaiei bidali eta hamabost egun baliodun igaro aurretik. Epe horretan, aipatutako errekursoa jar daiteke eta hala gertatzen bada kontratatzeko prozeduraren izapideak bertan behera geratuko dira errekursoa ebatzi arte, zeina TRLCSPren 40. eta hurrengo artikuluen arabera emango baita.

Aipatutako hamabost egunak errekurtsorik jarri gabe pasatzen badira, esleipendunari eskatuko zaio kontrua bost eguneko epean formalizatzeko –errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita—.

Eskaintza onuragarriena egin duen lizitatzaileari kontratuaren adjudikazioa egiten ez zaionean, hark ez dituelako bete hartarako beharrezkoak dituen baldintzak, beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak errekerimendu berri bat bidali diezaioke ondorengo lizitatzaileari, eskaintzak sailkaturik geratu diren ordenaren arabera, eta hala denean 5 lanegunen epea emango zaio hari lehen adierazitakoak betetzeko.

Adjudikazioa gehienez bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita. Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 161.3 artikuluan aurreikusten denez, epe hori hamabost lanegunetan luzatuko da Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 152.3 artikuluak zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurri gainekoak dituzten eskaintzak antzematen diren kasuetan.

Eskaintza anormaltzat edo neurri zainekotzat jotzen denean, eskaintzaileari (edo eskaintzaileei, hala dagokionean) entzun egingo zaio, eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu horretan, lizitatzaleak emandako arrazoia eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratacio-organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaleari egingo dio adjudikazioa, Administrazioaren esanetan lanak egoki egiteko gaitasuna badu; bestela, anormaltzat edo neurri zainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio adjudikazioa.

Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 155.2 artikuluaren arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzaleei eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzaleei entzunaldi eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua hobetuko da administrazio agirian sinatuta, adjudikazioaren jakinarazpenean adierazitako epean.

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordinak ordainduko beharko ditu.

## **12. ORDAINTZEKO ERA**

Eskaintzen diren zerbitzuak hilabetez hilabete ordainduko dira. Horretarako, aldez aurretik adjudikazio-hartzaileak faktura aurkeztuko du (egindako lanak zehaztuz), eta kirol zerbitzuaren arduradunak oniritzia eman beharko dio. Nahitaez fakturarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- langileak izanez gero, horiei hil horretakooa ordaindu izanaren agiria, aurreko hileko TCak eta hauen ondorioz gizarte segurantzaren ordainketa egin izanaren agiriak.
- autonomoa izanez gero, gizarte segurantzari kuota ordaindu izanaren agiria.

Oniritzia eman eta gero, Udaleko Kontuhartzailertzako bulegoetan faktura erregistratzen den egunetik kontatzen hasita, gehienez ere 30 egunera ordainduko du Udalak faktura.

## **13.- KONTRATUA BURUTZEA.**

Kontratua beteko da zurrutu eta zorrotz jarraituta Baldintzen Pleguak dioenari eta –edozein kasutan ere— Udalaren ordezkarien kontratistari agiri horrek dioena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratista derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen Udalak aurretik ohartarazi beharrik.

Kontratista, zerbitzua edo prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebehar hauek hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziaztea eta ordaintzea; baimenak, lizenziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharra betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita

enplegatuaren eta enplegatzailaren arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du –bere plantillan integratua– eta, beste batzuen artean, obligazio hauek izango ditu:

A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztielarako, kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.

B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrik hartzen dituenean, kontratutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.

C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuak kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki, haien zeuzkaten lan bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Enpresa kontratisten langileek edo, kudeaketa-mandatu baten ondoren, bere zerbitzuak udaleko lantokietan edo haren erakunde publikoetan eskaintzen dituenek ezingo dute zerbitzu hauetarako sarbiderik izan:

a) Prestakuntza-ikastaroak; lan-arriskuen prebentzio-alorrean derrigorrez bete beharrekoak izan ezik.

b) Erakundearen posta elektronikoa. Posta elektronikoko konturen bat izendatu behar bazaie, posta elektronikoaren helbidean garbi utzi behar da kanpoko pertsonala dela.

c) Enplegatu publikoak sartzeko kontrol-txartelak. Hala bada kasua, sartzeko baimen berezi bat emango zaie. Instalazioetara sartzeko kontrolak inondik inora ere ez du esan nahi kontratistaren ordutegiaren kontrola egiten denik.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztielako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratistaren arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Plegu honetan datozen klausulei lotuta beteko da kontratua, eta kontratua interpretatzeko Administrazioak kontratistari emandako jarraibideen arabera.

#### **14.- PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Ez da preziorik berrikusiko kontratu honetan.

#### **15.- KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATUA.**

Kontratuari darizkion eskubideak eta obligazioak beste hirugarren bati laga dakizki oke baldin eta 3/2011 EDLaren 226. artikuluak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.

Azpi-kontratazioa: Kontratu honetan ez da horrelakorik onartzen.

#### **16.- KONTRATUA ALDATZEA.**

Arlo honetan, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluak eta 219. artikuluak diotena eta Administrazio Publikoen Kontratazio Erregelamenduaren 102. artikuluak ezarritakoa beteko da.

a) Baldintza pleguan aurreikusitako aldaketak (Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 106. artikula).

Kirol zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzu-eskaera handiagoa egiten badute aldatu ahal izango da kontratua, eta baita instalazioen ordutegia handituko balitz ere.

Aldaketa horien ondorioz, pleguan aurreikusitako urteko gehieneko gastua, gehien iota, % 40 gehitu daiteke. Portzentaje hori kontratuaren hasierako aldiari nahiz kontratuaren luzapenari ezarriko litzaiokе, luzapenik balego.

Onartzeko prozedura honakoa izango da: Kontratuaren Zuzendariak egindako proposamen batekin emango zaio hasiera aldaketa horiek onartzeko prozedurari. Kontratacio-organoak aldaketari onespina eman diezaion, aurretik, kontratistari hiru laneguneko entzunaldia eman behar zaio eta legokeen gastuaren fiskalizazioa egin behar da. Aldaketa onartu ondoren, eba zpena kontratistari jakinaraziko zaio.

Aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

**b) Baldintza pleguan aurreikusi ez diren aldaketak (Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 107. artikulua).**

Baldintza-orriean aurreikusi ez diren aldaketak, 107.1 artikuluak aipatzen dituen inguruabar horietarikoren bat gertatzen dela behar bezala justifikatzen bada bakarrik egin daitezke; eta betiere lizitazioaren eta kontratuaren adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 107.3 artikuluak ezartzen duen eran.

Arlo honetan, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren I. Liburuko V. Tituluak eta 219. artikuluak diotena eta Administrazio Publikoen Kontratacio Erregelamenduaren 102. artikuluak ezarritakoa beteko da.

Ez da aurreikusten kontratua aldatzeko aukerarik. Beraz, soilik aldatu ahal izango da 107.1 artikuluak aipatzen dituen inguruabar horietarikoren bat gertatzen dela behar bezala justifikatzen bada; eta betiere lizitazioaren eta kontratuaren adjudikazioaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 107.3 artikuluak ezartzen duen eran.

**17.- ARRISKUA ETA GORABEHERAK.**

Kontratuaren arrisku eta gorabeheren erantzukizuna adjudikazio-hartzalearena izango da eta ez du izango zerbitzuan gertatutako galera, matxura edo kalteengatik kalte-ordinak jasotzeko eskubiderik, ezinbesteko kasuan izan ezik.

**18.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME-EPEA**

Kontratua amaitu eta gehienez hilabete bat pasa baino lehen, zerbitzuaren harrera formala egingo da hartze-akta jasota.

Kontratu-mota honen izaera dela-eta, ez da berme-eperik jarri behar.

**19.- FIDANTZAREN ITZULKETA**

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren 102. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

**20. UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

Kontratua ikuskatzea Udalari dagokio, bere langile teknikarien bidez, eta horrek jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari, behar bezala bete ditzan, kontratu klausuletan oinarriturik eta kontuan izanik zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak izango dituela Alkateak.

Administrazioari dagozkie kontratua interpretatzeko prerrogatibak, hura betetzeko diren zalantzak erabakitzeko, interes publikoaren arrazoiengatik aldatzeko, hura bukatzea erabakitza eta zehaztea horren ondorioak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratuaren eta Administrazio Publikoen Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorrean ezarritako baldintza eta ondorioen mugan eta horiei lotuta.

Administrazioa beharturik egongo da 12. klausulan xedatutakoaren arabera ezarritako kopuruak ordaintzera.

## 21. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratua bertan behera uzteko arrazoia ondorengoak izango dira:

- Bi aldeek 3 hilabeteko aurrerapenarekin hala adostuz gero.
- Udalaren berariazko baimenik gabe zerbitzuak erabat edo zati batean besteren batiz editezka.
- Dokumentazio faltsua aurkeztea.
- Betebehar laboralak, zerga-arlokoak eta Gizarte Segurantzakoak ez betetzea.
  
- Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateratuaren 223 eta 308. artikuluetan jasotakoak.

Kontratua adjudikazio-hartzaleari atxiki dakiokeen arrazoien batengatik eteten bada, ezarritako behin betiko fidantza galduko du.

## 22.- EZ-BETETZEAK

Ez betetzeak arin, larri edo oso larri konsideratuko dira.

### **Ez-betetze arinak:**

- Plegu honetan jasotako arau orokor eta zehatzak ez betetzea, ez betetze larri edo oso larritzat jotzen ez direnean. Proposamenen balorazioan agindutakoa ez betetzea.

### **Ez-betetze larriak:**

- Kontratuaren xede den zerbitzua emateko moduari dagokionez, Kirol Zerbitzuak eman edo Plegu honetan ezarritako aginduak behin eta berriz bete gabe uztea. Bi hilabetean zehar birritan edo urtebetean 4 aldiz errepikatzea hartuko da errepikantzat.
- Osasun arloko aginduei jaramonik ez egitea edo publikoarentzat osasungaitz, arriskutsu edo gogaikarri diren egoerak ekiditeko Alkatetzatik emandako aginduak ez betetzea.
- Kontratistarentzat gasturik sortu gabe zerbitzuaren detaileen inguruan aldaketak egiteko Udalak hartutako erabakiak ez betetzea.
- Ezarritako ordutegia ez betetzea. Saiores bat ez ematea bere osotasunean.
- Antzemendako akatsak zuzentzeko Udalak emandako aginduak bete gabe uztea.
- Adjudikazio-hartzaleak aurkezturiko kudeaketa eta koordinazio egitasmoa ez bete eta burutzea.
- Ez-betetze arinak errepikatzea, hau da, gutxienez, bi ez-betetze arin egitea 6 hilabeteko epean.

#### **Ez-betetze oso larriak:**

- Zerbitzua eskaintzerakoan akats edo irregularitasun nabarmenak izatea, Pleguan, kontratuaren edo Udalak emandako aginduetan ezarritako baldintzetan ez-betetze larri edo arina ez denean.
- 6 hilabeteko epean ez-betetze larri bat baino gehiago egitea.

### **23. PENALIZAZIOAK**

Ez-betetzeak ondoren jasotzen diren isunekin penalizatuko dira:

- |                           |                         |
|---------------------------|-------------------------|
| - Ez-betetze arinak:      | 60 eurotik 125 eurora.  |
| - Ez-betetze larriak:     | 126 eurotik 300 eurora. |
| - Ez betetze oso larriak: | 301 eurotik 450 eurora. |

Edozein kasutan ere, penalizazioak ezarri aurretik enpresa adjudikazio-hartzaileari entzunaldia emango zaio.

### **24.- DATU PERTSONALAK**

Kontratacio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzentzakoak badira, kontratatzaleak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

### **25.- LEGE ARAUBIDEA**

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan xedatzen ez den guztirako ondoko arauetarako jarraitu beharko zaie:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koan; eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koan, Toki Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena.
- 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, azaroaren 14koan, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duena.
  - 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuaren 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
  - Administrazio Publikoaren Kontratuaren Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezear, zuzenbide administratiboko bestelako xedapenak, eta halakorik ezear, zuzenbide pribatukoak.

# **PLIEGO DE CLÁUSULAS JURÍDICO-ECONÓMICO-ADMINISTRATIVAS QUE REGIRÁN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA CONTRATACIÓN DE LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DEPORTIVOS PARA EL AYUNTAMIENTO DE BERGARA**

## **1. OBJETO**

Este pliego tiene por objeto contratar la prestación de los siguientes servicios:

1.1 Servicio de salvamento y socorrismo de las piscinas de Agorrosin Ekintza Gunea en Bergara.

1.2. A solicitud del ayuntamiento, prestación de actividades y cursillos de agua, actividades físicas de gimnasio, servicio de asesoramiento físico, y prestación de servicios de profesor, monitor, asesor o vigilante en las actividades que se organicen en el municipio ("Kirola kalera", jornadas en bicicleta, etcétera).

Los servicios que se están prestando actualmente han quedado recogidos en el anexo I.

## **2. PLAZO**

El plazo de la prestación podrá ser en total de CUATRO AÑOS, a partir del día siguiente al de la firma del contrato; no obstante, el Ayuntamiento podrá dar por finalizado el mismo al finalizar cada anualidad siempre que lo avise con una antelación de tres meses.

En caso de que transcurra dicho plazo, el contratista incurrirá en situación de mora, sin que haya de mediar advertencia alguna por parte de la Administración

## **3. OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA**

### **3.1 CONDICIONES GENERALES.**

a) La prestación de los servicios, durante el tiempo fijado en el contrato, de acuerdo con este pliego y con las directrices marcadas por la Administración a la empresa contratista para la interpretación del contrato. El contrato no podrá ser cedido, ni total ni parcialmente, a un tercero sin la autorización expresa de la Administración.

b) Depositar la fianza definitiva en el plazo señalado, así como en su caso la fianza complementaria.

c) Formalizar el contrato en el plazo establecido en el presente pliego.

d) Notificar al Ayuntamiento en un plazo de quince días las posibles imposibilidades o incompatibilidades.

e) Cumplir las disposiciones en materia de legislación laboral, de Seguridad Social y de la Ley 31/1995 en su totalidad (Ley de Prevención de Riesgos Laborales) y los Reales Decretos que la desarrollan, así como en materia tributaria, quedando el Ayuntamiento totalmente exonerado de responsabilidad por los incumplimientos que pudieran darse.

f) Asistir a las reuniones de coordinación establecidas por el Servicio Municipal de Deportes, cumplimentando los mecanismos de coordinación y evaluación. En ocasiones, estas reuniones de coordinación implican la participación imprescindible del personal de socorrismo

y monitoría deportiva, por lo que su presencia será obligatoria cuando el Ayuntamiento así lo considere.

g) Contratar el personal necesario para la prestación de los servicios. Respecto al personal contratado, se deberán presentar las copias de los contratos, así como de los documentos acreditativos del alta en la Seguridad Social, en un plazo máximo de 10 días a partir de la fecha de contratación.

La empresa adjudicataria del servicio deberá hacerse cargo de las personas trabajadoras que hoy en día prestan dicho servicio y quedará subrogada respecto a los derechos y obligaciones laborales de las anteriores entidades adjudicatarias. En el Anexo II se recoge la relación de personas trabajadoras, cuya información complementaria (contratos, nóminas...) estará en el Departamento de Deportes a disposición de las personas interesadas. Todo ese personal dependerá exclusivamente de la empresa adjudicataria, por cuanto ésta tendrá todos los derechos y obligaciones inherentes a su calidad de patrón, debiendo cumplir con los/as trabajadores/as a su cargo todas las disposiciones vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo.

En caso de que algún miembro del personal, en el cumplimiento de su trabajo, sufriera cualquier tipo de accidente o daño, la parte adjudicataria cumplirá la normativa establecida bajo su responsabilidad, quedando el Ayuntamiento de Bergara exonerado de toda responsabilidad. Para garantizar todo ello, deberá asegurar por un mínimo de 100.000 euros el riesgo denominado "responsabilidad patronal" incluido en la póliza de responsabilidad civil.

